



Nola idatzi?

*Mutil ilegorri muturbeltz hankaluzeak
kafea galdegin zuen.*


*Mutil ile-gorri mutur-beltz hanka-luzeak
kafea galdegin zuen.*



Berez, zuzenak dira biak. Izan ere, *sudurluze* moduko elkarte arruntak marrarekin edo loturik idatz daitezkeela erabaki zuen Euskaltzaindiak 1995ean.


25. araua: "Hitz elkartuen osaera eta idazkera"

"II.5. Marrarekin edo loturik idatz daitezkeen hitz elkartuak"



Bi aukerak zuzenak izan arren, honako gomendio hau eman zuen EIMAk, halako elkarte arruntei buruz, 2004an:

EIMA: Euskal ikasmaterialgintza
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Eusko Jaurlaritza






“(...) **sudurluze** ereduko hitz-elkarte arruntak, antzemangaitzak ez direnean, loturik idaztea hobesten eta gomendatzen da **ikasmaterialetan**: *(neska) sudurluze, (zezen) adarmotz, (agure) burusoil, (mutiko) musugorri, (marinel) odolbero, (adiskide) eskuzabal, (esparru) angeluzuzen, (teilatu) puntazorrotz...*”



Behinik behin, honako bikoiztasun hauek ageri dira *Hiztegi Batuan*:



- **adarmotz** edo **adar-motz** izond. 'adar bat behintzat falta zaiona edo moztua duena'
- **aho-zabal** edo **ahozabal** izond.
- **aho-bero** edo **ahobero** izond.
- **buru-argi** edo **buruargi**
- **buru-arin** edo **buruarin**
- **buru-bero** edo **burubero**
- **buru-makur** edo **burumakur**
- **buru-motz** edo **burumotz**
- **buru-gogor** edo **burugogor**
- **buru-harro** edo **buruharro**
- **buru-handi** edo **buruhandi**
- **buru-soil** edo **burusoil**
- **buru-zuri** edo **buruzuri**
- **buru-zut** edo **buruzut**
- **hanka-luze** edo **hankaluze**
- **hanka-motz** edo **hankamotz**
- **ile-gorri** edo **ilegorri**: *emakume ile-gorriak.*
- **ile-hori** edo **ilehori**: *soldadu gazte ile-hori bat.*

- **lepo-luze** edo **lepoluze**
- **lepo-makur** edo **lepomakur** 'lepo-okerra'
- **lepo-mehe** edo **lepomehe**
- **lepo-motz** edo **lepomotz**
- **lerro-makur** edo **lerromakur**
- **lerro-zuzen** edo **lerrozuzen**
- **musu-gorri** edo **musugorri** izond.
- **mutur-beltz** edo **muturbeltz** izond.
- **mutur-luze** edo **muturluze** izond.
- **mutur-zikin** edo **muturzikin** izond
- **mutur-zuri** edo **muturzuri** izond. *BNaf.*
- **zango-luze** edo **zangoluze**
- **zango-makur** edo **zangomakur** *Ipar. eta Naf.*
- **zango-mehe** edo **zangomehe** *Ipar. eta Naf.*
- **zango-motz** edo **zangomotz** *Ipar. eta Naf.*



Esanak esan, EIMAreⁿ gomendioaren arabera idaztea gomendatzen dizugu hasierako adibidea.

*Mutil ilegorri muturbeltz
hankaluzeak kafea galdegin
zuen.*



Gehiago jakiteko:

Euskaltzaindia (1995): "Hitz elkartuen osaera eta idazkera"

[Linean: http://www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua_0025.pdf]

ZUBIMENDI, Joxe Ramon (2004). "Hitz elkartuen idazkera", in *Ortotipografia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 69. or.

[Linean: https://www.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490/adjuntos/estilo_liburua/ortotipografia.pdf]